



HERRI ADMINISTRAZIOETAN HIZKUNTZA NORMALIZATZEKO ZUZENDARITZAREN TXOSTENA

Espedientea: DNCG_DEC_3031/18_05

Euskal Autonomia Erkidegoan etxebizitzen eta zuzkidura-bizitokien gutxieneko bizigarritasun-baldintzak arautzen dituen Dekretu proiektuaren berri jaso dugu bide telematikoetik Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko zuzendaritzan, martxoaren 2an Tramitagune tresna informatikoaren bitartez. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saileko Lurralde kudeaketa organoak bidali digu, eta derrigorrezko txostena emateko ere eskatu digu.

Eskaera horri erantzunez, xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezartzen duen azaroaren 6ko 233/2012 Dekretua, eta Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 11ko 82/2017 Dekretuaren 14.1) artikulua oinarri hartuta, txosten hau ematen dut:

a) Hizkuntza arloko araudiaren betetze maila.

Abuztuaren 31ko 128/2007 Dekretuak xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezarri zuen: *“euskararen erabileraren normalizazioaren arloan eskumena duenak araua prestatzeko hasierako fasean esku hartu ahal izan dezan”*. Azaroaren 6ko 233/2012 Dekretuak, aurrekoa indargabetuz, bere 4. artikuluan eskaera egiteko epea ezartzen du:

“Proiektua izapidetzen ari den sailak egingo du aholkularitza txostena emateko eskaria, hori taxutzeko espedientea behin behinekoz onartzeko agindua publiko egin ondoren, eta instrukzioa egin duen saileko zerbitzu juridikoak dagokion txosten juridikoa eman ostean” .

Izapidetutako dokumentuetan jasotzen denez, aztertzea eskatzen zaigun xedapenaren alde aurreko onarpena 2019ko irailaren 12koa da eta 2021eko urtarrilaren 23koa Aholkularitza Juridikoaren txostena. Bete da beraz aipatu Dekretuak xede honekin arautua.

Bestalde, aipatzekoa da hasieratik ez direla zintzilikatu Dekretuaren euskarazko zein gaztelaniazko zatiak; gaztelaniazkoa urtarrilaren 22an igo zen Tramitagunera eta euskarazkoa berriz, martxoaren 3an. Horrek zalantza sortzen du ea bete edo urratu ote den abenduaren 22ko 8/2003 Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren Legearen 7. artikulua. Artikulu hori jarraiki, alde aurreko onarpenak aginduaren testu osoari buruzkoa izan behar du; euskarazko zein gaztelaniazko zatiak barne.



Eusko Jaurlaritzak 2013ko maiatzaren 14an hartutako Erabakia xedapen hori betetzera dator; hain zuzen ere, lege, legegintzako dekretu, dekretu edo agindu izango diren xedapen orokorrak bi hizkuntzetan idazteko neurriak onartu zituen:

“betiere dagozkion negoziazio, audientzia eta kontsultak egiteko izapideak egin baino lehenago; izapide horiek guztiak ele bitan dagoen testuarekin egin beharko dira. Ondorengo instrukzio faseetan ere, derrigorrezko txostenak eta irizpenak eskatzeko orduan, bi hizkuntza ofizialetan idatzitako testua bidaliko da”.

Ildo beretik, izapidetzearen baitan jasotako txostenek testuaren zati biak hartu beharko dituzte kontuan eta, urratsez urrats, egokitzapenak bietan egin beharko dira. Tramitazioaren baitan egiten diren moldaketak testuaren zati bakarrean burutzea (usadioak ikusita, gaztelaniakoan oro har) eta amaieran horren itzulpena egitea lege urraketa litzateke; horrelakoetan, prozeduran erabilitako hasierako testuaren erdia alboratuz (euskarazko zatia, adibidez), izapidetzearen ibilbidea jarraitu ez duen testu berri bat onartzen delako.

b) Euskararen erabileraren normalizazioaren gaineko eragina.

Xedapenaren edukia arakatu ondoren adierazten dut Dekretu honetan jasotakoak ez duela bestelako eraginik izango euskararen erabileran.

Joseba Lozano Santos
Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko zuzendaria